

FAQ baino, FUCK asko unibertsitate lege berriaren inguruan

FUCK asko unibertsitate lege berriaren inguruan

Ez dakigu Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailak Euskal unibertsitate legearen aurreproiektuaren inguruan FAQ (Frequently Asked Questions) zerrenda argitaratuko duen. Aurreproiektua sakonki aztertu ondoren, [ikusi legeari LABek aurkeztutako helegiteak](#), oso kezkatuta gaude legearen norabidearekin bai eta beste alderdi askorekin ere. FAQak baino, **FUCK (Frequently Unexplained Controversial Keys)** asko daude mahai gainean. Ondoren, azaltzen dizkizuegu horietako batzuk.

1- Unibertsitate publikorako finantzaketa bermerik gabe.

USLOk 2023rako unibertsitate publikoen finantzaketa, gutxienez, BPGren % 1 izan behar dela ezarri arren, aurreproiektuan ez da aipatzen inolako ehuneko edo zifrarik... Ez zaio bermatzen EHUri inolaz ere beharrezko finantzaketa. Are gehiago, unibertsitate publikorako finantzaketa lotzen da neurri batean kanpotik finantzaketa lortzearekin. Zentzu horretan, ekarpen arrunta estutu daiteke eta errua unibertsitatearen gain irudikatu, kanpotik finantzaketa nahikorik ez jasotzeagatik. EAEko deialdietan EHU lehiatzen da pribatuak diren eta “finantzaketa publiko - kudeaketa pribatua” eremuan murgilduta dauden zentroekin, non ohikoa den publikoak ez diren zentroek finantzaketaren parte handia jasotzea, beren tamainagatik ez dagokiena...

Publikoaren ahultzea areagotzea aurreikus dezakegu eredu merkantilista eta elitista indartzen duen Eusko Jaurlaritzaren ikuspegi honekin.

2- Bermatuta egongo da irakasleek egin beharreko egonaldien finantzaketa?

Aurreproiektuaren euskarazko bertsioan 2 urteko egonaldia ezinbestekotzat hartzen da (“doktorego osteko bi urteko prestakuntza-aldia irakaslearen jakintza-eremuko nazioarteko ikerketa-zentro prestigiotsu batean”) eta gaztelaniazko bertsioan 4 urtetako egonaldiak (“periodo posdoctoral de formación de dos años tras una estancia de otros dos en un centro de investigación o universidad de prestigio internacional en su campo”).

Disfuntzio horrez gain, eta egonaldiak zein luzapen izan behar dutenaren eztabaidan sartu gabe, egonaldiak finantzatuko direla aipatzen da aurreproiektuan: “Unibertsitateen arloko sail eskudunak behar diren gastuak ordaintzeko laguntzak emango ditu irakasle eta ikertzaileek nazioarteko zentro edo unibertsitate prestigiotsuetan egonaldiak egin ditzaten”.

Sortzen diren argitu gabeko zalantzak ugari dira: egonaldi guztiak finantzatuko dira? Zein kontzeptu sartuko dira laguntza horietan? Joan-etorriak, ostatua, mantenua eta egonaldiari lotutako beste ekidinezinezko gastuak? Egonaldi horiek suposatuko duten diru-kopuru altua jakinda eta IRI

moduan egonkortzeko ezinbestekoak izango direla jakinda, Eusko Jaurlaritzatik heltzen den ekarpen arruntean sartuko dira? Irakasleen egonaldiak direla eta irakaskuntza hori emateko ordezeko irakasleen kostuak EHUrako aurrekontuetan isla izango du?

3- Zentzoei dagokienez, zer da “prestigiotsua” eta zein ondorio du izendapen horrek?

Aurreproiektuan, egonaldiak egiteko zentzoei aipamena egitean, “prestigiotsu” terminoa aipatzen da maiz. Zer da prestigiotsua izatea? Zein alderdik definitzen dute unibertsitate edo ikerketa-zentro bat prestigiotsu izatea ala ez izatea? Nork definituko du zer den prestigiotsua? Unibasqek akaso? Zein bide izango du unibertsitate-komunitateak irizpide horien definizioan parte hartzeko? Ezagutzen ez dugun “nor bait” horrek zerrendatutako zentro prestigiotsu horien artean ez dagoen zentro batean egonaldia egitekotan, kontuan hartuko da akreditazioak edota osagarriak lortzeko...?

Hotsandiko termino horren atzean alderdi gehiegi argitu gabe daude; haien artean, erabaki horiek nork hartuko dituen...

4- Nola bermatuko da unibertsitate publikoa doktore berriekin hornitzea egonkortzeko oztopo gehiago jartzen badituzte?

Jakintza arlo batzuetan doktoregai eta irakasleak topatzea erronka bihurtu da aspaldidanik. Ibilbide luze eta neketsu hori garatzeak duen konpentsazio ekonomiko baxuak zailtzen du nabarmen balizko irakasleak topatzea. Bi edo lau (argituko dutenean) urtetako egonaldiak egitera behartuta, irakasle izateko bide hori aukeratuko duten gazteen kopurua gutxitzeko arriskua argia da. Bermatuko dituzte beharrezko baldintzak unibertsitate publikoan irakasleen hurrengo belaunaldiak ziurtatzeko? Ibilbide eskakizunak zehazten dira; soldatak, laguntzak eta formaziorako erraztasunak ez. Unibertsitate publikoaren IRlentzako eskakizunak zehazten dira; unibertsitate pribatuetako irakasle-ikertzaileentzat apenas.

5-Ordezko irakaslerik gabe sailen funtzionamendu egokia nola bermatuko da?

Nahiz eta historikoki EHU n erabili eta USLO n bertan figura agertu, ordezkoei n bukatu nahi dute. Aurreproiektuan jasotzen da bakarrik salbuespenezko kasuetan kontratatatu ahal izango direla, eta sailaren irakasle guztien artean % 2tik ezin izango dutela igaro. Horren arabera, gaur egun ordezeko irakasleen bidez betetzen diren hutsuneak (izan arduraldi osokoak zein arduraldi partzialekoak, kargu akademikoengatik kasu) sailaren gainerako irakasleek beteko lituzkete? Iraupen luzeko gaixotasunak, sei urteetarako karguen baimenak, liberazio sindikalak, egonaldiak egiteko edota zaintzari lotutako baimenak daudenean, lankideek hartu behar izango dituzte beren gain kreditu horiek nahiz eta irakats-ahalmena beteta izan? Baja edo baimena hartuta zure lankideak lanez kargatuko dituzula jakinda, zein eragin izango du egoera berri horrek langileen osasunean, garapen-profesionalean baita sailen barruko giroan?

6- Zer gertatuko da lortutako ordainsari osagarriekin hemendik aurrera?

Ordainsari osagarrien sistema berri bat igortzen digute aurreproiektuan, non osagarri finkatuak eta finkaezinak ezarriko lituzketen. Aurrekariak ezagututa (deialdiak bertan behera urte batzuetan,

deialdiak berandu ordainketaren hasiera urte oso bat atzeratzeko, Unibasqen irizpideen iluntasuna, aitortutako osagarrien kopurua gutxitzeko azpajokoak ...), mesfidantzaz hartu behar da berria. Lortutako osagarriak galtzeko aukera irekitzeaz gain, osagarriak eskuratzea zailduko dela aurreikus daiteke.

Aurreproiektuan iragartzen da, nahi dutenek aukera izango dutela orain arte lortutako osagarriak mantentzeko, baina ez da azaltzen ea sistema berriaren deialdietara aurkeztu ahal izango diren. Antzeman daiteke txantaje moduko zerbaite: edo dagoenarekin geratzen zara ordainsari gehigarri gehiago lortu ezinean, edo arriskatzen zara gehiago lortzera baina esleituta dauzkazun batzuk arriskuan jarritz..

7-IRlen oinarritzko soldatak igotzeari aipamenik ez...

Testuan zehar osagarriei aipamen batzuk egiten bazaizkie ere, soldatari buruz ez dago aipamenik aurreproiektu osoan. Ez zioen azalpenean ezta artikulatuan ere "soldata", "sueldo", "salario" hitzak ez dira inon agertzen. Lege bat ez da soldaten diru-kopurua definitzeko araudia, baina gabezia horrek argi adierazten du Eusko Jaurlaritzak unibertsitate publikoaren IRlen soldatak zaintzeko (hau da, oinarritzko soldatak igotzeko) ematen dion garrantzia: hutsaren hurrengoa. Soldatei aipamena egiten ez zaien ia 60 orriko lege-aurreproiektu batek argi erakusten du Eusko Jaurlaritzak zein garrantzi ematen dion gai honi. Eskakizunak igo bai; soldatak igotzearen aurrean ezetza borobila.

8-TEKAZEL/IRI ratioaren balizko igoera, TEKAZEL plantilla igotzetik ala IRI plantilla gutxitzetik etorriko da?

Aurreproiektuak aipatzen du unibertsitateak TEKAZEL nahiko izan behar dituela, neurri handi batean ikerketa-jarduerak behar bezala sostengatzeari begira. Aldiz, ez du inon aipatzen TEKAZEL/IRI ratioa handitzea, Europako zein Estatu espainiarreko unibertsitateetatik hain urrun dagoen ratioa, hain zuzen ere. TEKAZEL plantilla handitzeko aipamen zehatzik ere ez dago (IRI plantilla igotzeko ezta ere).

Antzematen den apustua da ikerketa bultzatzeko ahalegina egingo dela. Ez ordea irakaskuntza eta gainerako funtzioak (mantentze-lanak tartean) garatzeko, kasu askotan IRlen lan-karga handitzen duena. Era berean, unibertsitate publikoaren IRlen plantilla nahikoa izateari aipamenik ez egoteak zalantzak sortzen ditu. TEKAZEL/IRI ratioa handitzeko atarian gaude baina ez TEKAZEL plantilla igotzeagatik baizik eta IRI plantillaren gutxitzearen kontura?

9-Zein asmorekin ezarri nahi da TEKAZEL langileen jardunaren ebaluazioa karrera profesionalari lotuta ez badago?

114. artikuluan TEKAZEL langileen jardunak ebaluatzeko sistemak ezarriko direla esaten da, baina ez da zehazten zertarako, zein helbururekin. Karrera profesionalari begira egiten ez bada, zein da xedea? Asmoa izaera zigortzailea izango duen ebaluazioa ezartzea al da?

10-Diru publikoa jasotzen duten unibertsitate pribatuetan euskarazko bermerik ez...

Unibertsitate publikoaren kasuan honakoak jasotzen dira: "Unibertsitateak euskaraz ikasteko eta

erlazionatzeko eskubidea bermatuko du eta, horretarako, beharrezko neurriak hartuko ditu, estatutuetan eta plan espezifikoean ezarritakoari jarraituz” eta “Unibertsitateak graduako eta masterreko titulu guztiak euskaraz emateko adina irakasle elebidun izan beharko ditu.”. Hala ere, unibertsitate pribatuen kasuan (aurreproiektuan unibertsitate pribatuak izendatzeko “unibertsitate ez publikoak” eufemismoa erabiltzen da), euskararekiko trataera oso bestelakoa da: “Publikoak ez diren Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek beren jardueretan euskara erabiltzea sustatuko dute.”

Euskara bultzatu nahi omen dute. Hori bai, nagusiki unibertsitate publikoaren kontura, nahiz eta pribatuek ere diru publikoa jaso. Gai honetan ere, pribatuetarako exigentzia maila malgua baino malguagoa.

11-Lan-baldintzei lotutako neurri asko baina langileen ordezkarietako negoziatzeari aipamenik ez...

Lege honek eragin zuzena izango du unibertsitateko langile guztien lan-baldintzetan. Hala ere, sailburuak sinatutako aginduan kontsultarako epean egiteko aipatzen den negoziatzeari ez egiteaz gain, aurreproiektuaren testu osoan sindikatuak egiten zaien aipamen bakarria EHUKo Gizarte kontseiluaren osakeran topatzen dugu. Negotzeari hitza bakarrik behin aipatzen da, itzaltsuen eta bisitarien ordainsari araubidea aldeek negoziatu ahalko dutela esateko. Hain zuzen ere, negoziatzeari kolektiboaren gaitetik pasatzeko, figura hauen soldatak era atomizatuan langile bakoitzarekin negoziatzeko. Eusko Jaurlaritzaren liberalismoaren erakusle, beste behin ere. Gainerako langileen lan-baldintzak definitzeko orduan sindikatuak oztipoa omen dira eta, beraz, hobeto araudiak eta erabakiak goitik ezartzea eta langileen ordezkariak alboratzen saiatzea...

12-Unibertsitate publikoari kontrol zorrotza bere autonomia mugatuz, eta unibertsitate pribatuentzako eskari gutxi eta zehaztasun gutxiarekin...

Nagusiki diru publikoarekin finantzatuta izanda, Unibertsitate publikoarekiko kontrol eta fiskalizazio zorrotza ezartzeari buruzko zalantzarik ez dago. Hala ere, alderdi batzuetan aurreproiektuan jasotako adierazpen batzuk unibertsitatearen autonomian sartzen dira. Adibide argiena lanpostuen sorrera izan daiteke. Argi dago lanpostuak sortzeko aurretik finantzaketa esleituta egon behar da, baina, aurrekontua egonda, Eusko Jaurlaritzak ez du eskua sartu behar zein lanpostu mota edo zenbat lanpostu sortzen diren erabakitzeko. Aurreproiektuan argi ikusten da unibertsitate publikoa estu kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzaren interbentzionismoa.

Kontrako aldean unibertsitate pribatuak dauzkagu. Unibertsitate publikoari buruzko 19 orri daude testuan, eta unibertsitate pribatuei buruzko artikulak 2 orri baino ez dira. Publikoa kate motzean lotzen saiatu eta pribatuekin *laissez-faire*, Eusko Jaurlaritzak “publiko-ez publiko” ikuspegia “harmonikotzat” eta “osagarritzat” saldu nahi digun unibertsitate ekosisteman..

Legearen aurreproiektuak mehatxu argiak dauzka unibertsitate publikorako zein EHU langileen lan-baldintzetarako ere. Kontziente izan gaitzen datorrenaz eta, inposatu nahi

duten eredu merkantilistaren aurrean, aktiba gaitezen unibertsitate publikoaren alde eta gure lan-baldintzen defentsan. Hurrengo hilabeteak gakoak izango dira. Eremu honetan ere LABek jarraituko du unibertsitate publikoa eta bere langileen alde borrokatzen.